

# Okerreko aldean

Itxaropena Iqbalen ondoren

Francesco D'Adamo

**Argitaletxeko koordinatzailea:** Aurelio Erdozain

**Egilea:** Francesco D'Adamo

**Itzulpena:** Lurdes Auzmendi eta Koldo Biguri

**Azala:** Luis Alonso

**Bildumaren diseinua eta maketazioa:** Luis Alonso

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.*

Ale hau erabiltzeko eskubide guztiak erreserbatuta daude. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke. Debekatuta dago testu osoa edo zati bat informatikoki erabiltzea edo hedatzea, aurrez baimen idatzia izan gabe. Zatiren bat eskaneatu edo fotokopiatzeko, baimena eskatu behar zaio ALAI ARGITALETXEA argitaletxeari (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

© 2015 by Giunti Editore S.p.A.,  
Firenze-Milano  
[www.giunti.it](http://www.giunti.it)

Argitalpen honena:  
© 2020 ALAI ARGITALETXEA, SL

Jatorrizko izenburua:  
*Dalla parte sbagliata.*  
*La speranza dopo l'qbal*

ALAI ARGITALETXEA, SL  
[alai@alai.eus](mailto:alai@alai.eus)  
**[www.alai.eus](http://www.alai.eus)**  
ISBN: 978-84-120944-5-9  
Lege-gordailua: D 398-2020  
EBn inprimatua - Printed in EU.

# Okerreko aldean Itxaropena Iqbalen ondoren

**Francesco D'Adamo**

**Itzulpena:** Lurdes Auzmendi eta Koldo Biguri

## **Italia, Milan, 2005eko apirilaren 16a**

Maria, adiskide maite-maitea, ahizpa:

Goizean goiz esnatu naute gaur euriak, patioko harrien kontra egiten zuen zaratagatik, eta haizearekin kolpeka zebilen kontraleiho askatu batek.

Gure haranetako haizeaz gogoratu naiz, kometei altu hegan eginarazten dien haizeaz.

Gero Iqbal etorri zait gogora.

Zabaldutut begiak, ikusitutut nire logela betetzen zuen argi gris ilunkara, ohe ondoko horma zartatutut zintzilik daukadan zeta indiarrezko fular koloretsuaren muturbat, bernizatu gabeko egurrezko komoda zaharraren irudia, eta ez dut ezer ezagutu.

Nahasmendutut une bat eduki dut, sarritan gertatzen zaidan bezala, eta neure buruari galdetu diot: «non nago?».

Pentsa, oraindik gertatzen zait, hamar urte eta gero.

Erdi-lo eta baldar jaiki naiz, nire txabusinaren bila hasi naiz, alferrik bilatu ere, ni izorratzeko-edo armairuan ezkutatuta baitzegoen, eta etxeko zapatilekin ere berdin: ohe azpian galduta zeuden, beti bezala, baina ez ditut aurkitu, eta oinutsik ibili behar izan dut lurreko baldosa izoztuen gainean.

Goizean goiz desastre bat naiz, garai bateko neska al-ferra izaten jarraitzen dut, gogoratzen?

Arraro sentitzen nintzen, nahastuta.

Gero, aspaldiko urteetan bezala, ugazabandrearen ahotsa entzun dut, Hussain Khanen emaztea, oihuka: «Jai-ki! Jaiki, alferrok!», eta, ustekabean, gosariko txapati ogia-*ren* eta *dahi* jogurtaren usainak bete du gela.

Orduan, lurrezko zoru gainean eseri naiz, hankak gurutzatuta, erakutsi zidaten bezala, hura baitzen nire tokia, eta amorruz eta irrikaz egon naiz itxaroten noiz utziko zituzten lurrean guztiontzako janari ontzi erraldoiak, beste guztiekin borrokan hasi beharko bainuen jan ahal izateko. Ume asko ginen, gehiegi, Hussain Khanen alfonbra fabrika, Lahoren, Pakistanen.

Sekula ez zen egoten janari nahikoa guztiontzat, eta jada umetatik ikasi behar izaten genuen, beste ezer baino lehen, azken mokaduraino ere kentzen gu baino zaharra-*goei* eta indartsuagoei.

Gose nintzen, sabelak haginka egiten zidan. Gose nintzen eta banekien ez zidatela beste ezer emango egun osoan. Azkar jaten nuen, ahoa beteta, esku batekin ahal nuen janari guztia hartzen nuen, eta, bestearekin, ondoan neuzkanen erasoetatik babesten nintzen, une batetik bestera ugazabandreak oihu egingo zuelako: «Nahikoa da! Lanera! Lanera!», eta hobe genuen obeditu, ia ez genuen astirik izaten errezel hautsiaren atzean zegoen komun-zulo nazkagarrira joateko.

Zutitu egin naiz orduan, besteekin batera ilaran jartze-ko.

Baina ehungailuak jada martxan daude, entzuten da haien zarata erritmikoa, tunp, tunp, tunp, eta ez dira gera-tuko ilundu arte, zarata errepikatzen jarraituko dute eguzkia sartu arte, eta, hasi besterik egin ez duten arren, airea arnasezina da dagoeneko, hautsa, artile eta kotoi litsak bi-riketan sartzen zaizkizu eta beroa gero eta handiagoa da eguna aurrera joan ahala.

Ehungailuak funtzionamenduan daude jada, eta nik oraindik komunera joan behar dut, ez dakit zer gertatu den gaur goizean, berandu nabil, bizkor ibili behar dut, azkar.

Oraindik lanean hasi ez arren, dagoeneko minduta dauzkat besoak eta bizkarra, ezingo diot erritmoari eutsi, nahastu egingo naiz, alfonbra hondatuko dut, eta ugaza-bak zigortu egingo nau.

Beldur naiz.

Fatima.

Esnatu, Fatima.

Ametsetan egon banintz bezala esnatu naiz.

Ez nengoen Pakistanen, Lahoreko alfonbra fabrika. Ez nintzen esklabo txiki bat. Hussain Khanek ezingo zidan min gehiago egin.

Nire etxean nengoen, Italian.

Leku seguruan nengoen.

Zoru hotzaren gainean jaiki naiz.

Hankak lokartuta eta ipurdia izoztua neuzkan.

Txabusina eta zapatila bihurriak aurkitu ditut.

Zorionez, pixa egiteko ez neukan errezel zikin baten atzera joan beharrik: bainugela txiki-txiki baina eroso daukat neuretzat bakarrik.

Azkenik ezagutu ditut neure gauzak: eskuila, orrazia, begietako arkatza, henna ontzia.

Eta gosaltzeko dilista kremarik ez: tea, txigorkiak, marmelada —baldin eta erosteaz gogoratu banaiz.

Gero pentsatu dut: gaur apirilaren 16a da.

Apirilaren 16an beti egoten naiz galduta eta nahastuta.

Beste egunetan ere gertatu ahal zait hori, baina noizean behin bakarrik.

Apirilaren 16an, aldiz, beti gertatzen zait.

Eta uste dut zuri, Maria, ahizpa, zuri ere gertatzen zai zula.

Apirilaren 16an, gogoaz Lahorera itzultzen naiz, oraindik neskatilea bat izango banintz bezala, zu, ni eta besteak katez lotuta hainbat urtez egon ginen fabrikara itzultzen naiz.

Berriro sentitzen ditut usainak, zaratak, katearen presioa txorkatiletan, beldurra.

Eta ondoren berriro entzuten ditut tiro hotsak, pum, pum, pum, duela hamar urtez geroztik nire bizileku den atzerriko hiri honetako haizeak astintzen duen kontraleiho hori bezala.

Urtero, apirilaren 16an saiatzen naiz irudikatzen nolakoa izango zen Iqbal hil izan ez balute, nolakoa izango zen haren bizitza, eta gurea, 1995eko Pazko egun hartan pistola tiro haiek huts egin balute.

Hamar urte igaro dira, gizon gazte bat izango zen honezkero.

Garaia, argal-argala.

Tira, garaia agian ez.

Beti izan zen txikia, baina urteekin hazi egingo zen beharbada, zer uste duzu zuk?

Mutil baldarra eta kankailua izaten jarraituko ote zuen, orduan bezala? Ala bere buruaz seguru dagoen mutil harrosko bat izango ote zen? Auskalo.

Agian bibotea hazten utziko zuen. Imajinatzen?

Gozoa. Lehenago bezain gozoa izaten jarraituko zuen. Hori seguru.

Beharbada nik ez nuen emigratuko nire anaiekin batera, eta orain ez nintzen Italian biziko.

Bera ziur sekula ez zen Pakistandik joango, han geratuko zen haur esklaboak askatzeko borrokan.

Orain zuk egiten duzuna, ahizpa nire.

Orain hirurok elkarrekin egongo ginen, lagun handiak izango ginen, eta inork ez gintuen banatuko, inork ezingo gintuzke gerarazi.

Beharbada...

Badakit, ez du honek ezertarako balio, alderantziz, neure buruari mina besterik ez diot egiten.

Baina gaur oroitzapen eguna da.

Jantzi egin naiz.

Oinetako lodiak jantzi ditut, euritarakoak.

Ilea zapiatz estali dut. Hemen, Italian sekula ez dut eramaten, horrela begirada ergelak saihesten ditut. Gaur, aldiz, begiratu dezatela nahi badute, nahi dutena esan dezatela.

Kometa hartu dut armairu gainetik, han egoten baita urte osoan.

Hautsa kendu diot, eta hautsita zegoen zinta koloretsu bat konpondu dut.

Poltsa handian sartu dut, soberan dauzkadan bi kiloak kentzeko alferrikako ahaleginean gimnasia joateko erabiltzen dudana poltsan.

Zeru goibela, haize boladak, trafikoan harrapatutako autoen turutak.

Apirilak hilabete ezta eta pentsalaria izan beharko luke.

Ordu erdiz egon naiz autobusaren zain.

Jendetza, aterki blaituak, aurpegi ernegatuak.

Alde batetik eta bestetik bultzatu naute.

Ez nintzen inoiz iristen.

Putzu batean jaitsi naiz autobusetik, bide labur bat oinez egin eta Iqbal parkera iritsi naiz.

Ez dauka ezer berezirik, hiri ertzeko parketxo bat da, etxe artean itxia. Saskibaloian jokatzeko saskiak daude, mutilek errotulagailuen zirrimarraz bete dituzten banku batzuk, belar apur bat, katu kolonia bat.

Niri gustatzen zait, ordea.

Gaur erabat hutsik dago, noski.

Iqbalen izena jarri zioten, duela urte asko.

Ziur nago gaur inork ez dakiela zergatik.

Poltsatik kometa atera dut, hari nahaspilatua askatu, zabaldu eta korrika hasi naiz lur bustiaren gainean, kometa aireratu eta haizearen eta euriaren kontra, minaren eta barkadarearen kontra hegaldatu nahirik.

Lurrera erori da, ordea.

Ahal bezain ongi garbitu dut, ez nekien zer egin, ondoren zuhaitz beltz bateko adar apal batetik zintzilikatu dut, eta han geratu da, kulunka, bere zinta koloretsuekin.

European zutik geratu naiz, kometari begira eta Iqbalengan pentsatzen.

Negarrez hasi naiz.

Gero gauza itsusi bat bururatu zait.

Pentsatu dut agian alferrik izan zela dena, modu hartan hiltzea.

Zergatik hil zen Iqbal?

Barkaidazu Maria, laguna, ahizpa.

Ahula eta tentela naiz.

Ez nuen hori esan behar.

Zu Pakistanen zaude eta haren borrokarekin jarraitzen duzu, ez dakit ezta non zauden ere oraintxe bertan, gure herrialdeko zein tokitan, baina badakit egunero arriskatzen zarela gure umeen, gure neskatilen eskubideak defendatzeagatik.

Gaur goizean zuk ere Iqbal gogoratu eta kometa hegaldatu duzu. Urtero egiten dugu, duela hamar geroztik. Gure lokarria da.

Zure kometak behintzat, hala espero dut, zeruan gora egingo zuen.

Badakit bizi zaila dela han.

Hemen ere zaila da, baina beste era batera.

Ni jada hemengo bizimodura moldatuta nago, italiaraz nahiko ongi hitz egiten dut, azkenik neure etxea dau-